

GAIA.- GERENTE JAUNAREN EBAZPENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MARTXOAREN 28KO 31/2023 FORU DEKRETUAN ARAUTUTAKO GIZA BALIABIDEEN ETA BELAUNALDI-ERRELEBOAREN PLAN ESTRATEGIKOA EZARTZEKO.

Gerente jn.:

EGITATEAK.- Apirilaren 17an, GUFeko Gobernu Batzordeak xedatu du Foru Erakunde hau Giza Baliabideen eta Jakintzaren Transferentziarekin Planifikatutako Belaunaldi Erreleboaren Plan Estrategikoari atxikitzea. Plan hori Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 28ko 31/2023 FORU DEKRETUAK arautzen du. Salbuespen berariazkoa da haren irismena Erakundearen berezitasunetara egokitzea, eta hori haren izaera eta azken helburua aldatu gabe, Plan hura zeharkatzen eta egituratzen duen espirituaren arabera. Era berean, eta helburu horrekin, gerentea gaitu zuen, aipatutako plana behar bezala garatu eta gauzatzeko behar diren zehaztapen guztiak eman zitzaizkion.

Bada, Erakundearen idiosinkrasia berezia dela-eta, xedapen berezi batzuk ezarri behar dira, gero xedapen-zatian jasotzen direnak.

KONTUAN HARTZEKOAK.- Gai honetaz arduratzeko eskumena gorago adierazitako arduradun gaituari dagokio, eta Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gerentzian du egoitza, maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, erakunde hori arautzen duten estatutuak aldatzen baititu.

Horrekin bat etorritik, sinatzen duenak honako proposamen hau aurkeztu du:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Urtero, dagokion deialdian zehaztuko da Giza Baliabideen eta Jakintzaren Transferentziarekin Planifikatutako Belaunaldi Erreleboaren Plan Estrategikoan sartzeko eskabideak aurkezteko epea.

Giza Baliabideen eta Jakintzaren Transferentziarekin Planifikatutako Belaunaldi Erreleboaren Plan Estrategikoan sartzeko eskabideak aurkezteko epea, 2023. urte honi dagokiona, **2023ko apirilaren 18tik maiatzaren 18ra artekoa** izango da.

Planean 2024ko apirilaren 1a baino lehen sartzeko aurreikusitako data duten interesdunek aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak deialdi honetan.

Bigarrena.- Erantsitako ereduaren arabera eskabideak, GUFeko Zerbitzu Orokorren zuzendari jaunari zuzenduak, GUFeren Erregistro Orokorrean posta elektronikoz bidalitako mezu baten bidez aurkeztuko dira ifas.registro@bizkaia.eus, edo bestela Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein lekutan (Estatuko Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztza, Eusko Jaurlaritza, udalak, posta-bulegoak...).

Eskabide-ereduarekin batera, Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatearen agiria aurkeztu behar da, ohiko erretiro-data edo, hala bada, dagokion erretiro-aurrerapenaren data zehazten duena (erretiroaren simulazio-txostena).

2023ko deialdi honetan, aurkeztutako eskabideak 2023ko ekainaren 1etik aurrera sartuko dira Planean.



Hirugarrena.- Bai Belaunaldi Erreleboko eta Jakintzaren Transferentziako programa egiteko konpromisoa bai "mentoring" programa betetzeko, eredu normalizatu bat egingo da lantoki bakoitzean, dagokion burutzarekin lankidetzan eta hark gainbegiratuta. Planari atxikitako pertsonen sortzen duten informazio guztia Plan honetarako berariazko biltegi batean sartuko da, eta GUFEn unitate partekatu batean sartuko da, berau erabiltzeko eta egiaztatzeko.

Laugarrena.- Eguneko lanaldian hartzeko hogeit (20) minutuei buruzko erreferentzia, martxoaren 28ko 31/2023 Foru Dekretuaren 7. artikuluko 1.2 puntuko b) letran ezarria, Erakundearen lantokietan txandakako karteldegiaekin lan egiten duten langileei dagokienez, hileko lanaldi metatuan zenbatu behar da, dagokion hilean sortu den guztizkoaren balio baliokidearekin.

Bilbon, 2023ko apirilaren 17an

GIZA BALIABIDEN ZUZENDARIORDEA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Alazne Rubio Terradillos


Sin.: Eneko Gutierrez Coterón

EBAZPENA, 2023 apirilaren 17koa, GUFeko gerente jaunarena.
Aurreko proposamena ikusita, oso-osorik onartu da. Bete bedi.


Sin.: David Latxaga Ugartemendia